

# ONDO PASATZEKO SUKALDARITZA



## INTXAURRONDO HEGOA IKASTETXE PUBLIKOA

Baratzategi 19, 20015 Donostia

**KOORDINAZIOA:**

"Haurtxoak" Guraso Elkarte: Tamara Gómez Echave

Ikasketa Burua: Pilar Lassalle Liberal

Praktiketako ikaslea: Nora Fernández de la Bastida

## JUSTIFIKAZIOA ETA HELBURUAK

Haur elikadurak kezkatzen gaituen kontua da. Elikadura ohitura egokiak mantentzea funtsezkoa da gure haurrak osasuntsu eta indartsu haz daitezen eta honek, modu positiboan eragiten die euren osasunean, ikasteko, pentsatzeko, hausnartzeko eta besteekin komunikatzeko gaitasunean eta batez ere, euren eskola errendimenduan. Haurtzarora, elikadura ohitura osasuntsuak bereganatzeko unerik aproposena dela uste dugu.

Elikadura, haurren hazkuntzaren oinarritzko atala bilakatzen da familia askoren kasuan baina sarritan estutasun handia sortzen duen kontua bihurtzen da eta ondorioz, zenbait akats egiten ditugu.

Bestalde, eskolako jangela erabiltzen duten haur kopurua handitzen doa pixkanaka, beraz, eguneko otordu garrantzitsuenetako bat testuinguru honetan gauzatzen da.

Familia artean eta eskola barruan gai honen inguruan jardutea ezinbestekotzat jotzen dugu.

Guzti honengatik "Haurtxoak", Intxaurrondo Hegoa eskola publikoko guraso elkarteak, familia eta eskola bateratzen dituen proiektua egitea proposatzen du.

Gure eskolan lanerako erabiltzen den ardatza aintzat hartuta (curriculumeko eremu guztiak jorratzen dituzten Sekuentzia Didaktikoak eta hizkuntzen erabilera komunikaziozko ikuspuntu batetik), proiektu orokor bat burutu nahi dugu, non Eskola Komunitateak parte har dezan azpimarratzen den: ikasleek, familiek, irakaskuntza taldeak, eskolako langileek eta irakaskuntzarekin zerikusia ez duten auzoko zenbait erakundeek (Jubilatuak elkarteak, Casa Extremeña, gastronomia- elkarteak...).

Prozesu luze honen azken xedea errezeta liburu baten argitalpena izango da, "**Intxaurrondo Hegoan horrela elikatzen gara**" izenburupean. Liburua datorren kurtsuaren hasieran ospatuko den gastronomia topaketa batean aurkeztuko da. Denon artean landuko den eta eskola komunitate guztiari luzatuko zaion errezeta liburu honek, eskola barruan jorratzen diren hiru hizkuntzetan (euskara, gaztelania eta ingelesa) idatzitako errezetak bilduko ditu, eta gainera, ikasle etorkinen jatorrizko hizkuntzetan idatziak azalduko dira.

Bitartean gure helburuak honako hauek dira:

- Familien parte hartzea sustatu eskola barruko bizian murgil daitezen.
- Eskola Komunitateko estamentu desberdinen arteko partaidetza sendotu.
- Errezeten bitartez ikasleek, munduko ohitura eta kultura anitzak ezagutu eta errespetatu ditzaten lagundu.
- Familia guztia elkarrekin egoteko aukera bikaina da. Ikasleek eskolara ekarriko dituzten errezetak etxekoan artean prestatuko dituzte, sukaldearekiko harremana har dezaten.

## PROZESUAREN ATALAK

- 1) Aldibereko lana eskolako ikasgela guztietan: elikadura eta errezetak. Familien, irakaskuntza taldearen eta irakaskuntzan jarduten ez duten eskolako langileen errezeta ekarpenak (2011- 2012 kurtsoa hirugarren hiruhilabetea).
- 2) Liburuan argitaratuko diren errezeten sailkapena eta antolakuntza. Liburuaren diseinua (2011- 2012 kurtsoaren azken egunak).
- 3) Inprimatze lanak (2012ko uda).
- 4) "Intxaurrondo Hegoako aste Gastronomikoa" lelopean, zenbait ekintzen ospakizuna, errezeta liburuaren aurkezpena besteak beste.

Helduei zuzenduriko ekintzak (familiak, irakaskuntza taldea eta irakaskuntza taldeetik kanpo daudenak):

- Elikaduraren inguruko hitzaldia: diabetiko eta zeliakoen janaria, elikadura alergia eta arrazoi kultural nahiz erlijiosoek menpe dauden janari murrizketak.
- Krisi ekonomikoagatik erorketa "saskiak" jasotako eraginaren inguruko eztabaida.
- Sukaldean sobratutako janariaren berrerabilpenaren inguruko ideien hartu emanak.

Haur eta helduei zuzenduriko ekintzak:

- Gozogintza tailerra.
- Okintza tailerra.
- Pintxo lanketaren tailerra.
- Sukalde eskola batera bisita.
- Liburuaren errezeta batzuen dastamena.

## IKASLEEK BURUTUKO DITUZTEN EKINTZAK (ikasgelan)

**Errezetaren inguruko lana, testu inbuktiboaren genero espezifiko gisa.**

- Irakasle bakoitzak bere taldearekin erabakiko du lana gidatzeko modua, baina talde guztiek abiapuntu bera izango dute: ikasle bakoitzak errezeta bat ekarriko du bere etxetik. Irakasleei eta eskolako langileei ere errezetak eskatuko zaizkie.
- Errezetaren analisia ikuspuntu linguistikotik: egitura eta formatua, hiztegi espezifikoa, euskarri arruntenak...
- Errezetaren analisia ikuspuntu matematikotik: kantitateak, neurri unitateak, proportzioak...

**Elikaduraren inguruko lana:**

- Dieta osasuntsurako oinarritzko elementuak eta jangelako menuaren analisia.
  - Hainbat elikagaien ezaugarriak.
  - Zenbait elikagaiek jasandako prozesua, euren jatorritik etxeko kontsumorarte (ekoizpena, fabrikazioa, banaketa, prestaketa).
- Denboraldiko produktuak kontsumitzearen garrantzia. Bretxako azokara bisita.



- Zenbait gaixotasunentzat dieta mota desberdinak (diabetesa, zeliakoak, elikadura alergia...), kultura, erlijio edota norberaren ideiak (dieta begetarianoa, makrobiotikoa...).

#### **Munduko errezetak:**

- Munduko leku desberdinetan jaten diren plater eta elikagaiak.

#### **Hamaiketako edo askariaren antolakuntza ikasgelan:**

- Jango duguna erabaki.
- Beharko ditugun kantitateak kalkulatu: aurrekontua (prezioa/kantitatea).
- Auzoko denda batean erosketak egin.
- Hamaiketako edo askariaren prestaketa.

#### **Eskolako baratza:**

- Eskolako baratza martxan jarri (eskolako handitze lanak egiten ziren bitartean baztertutako proiektua).

## **GURASO ELKARTEAREN ROLA PROZESU HONETAN**

"Haurtxoak" elkarteko kideak proiektuaren koordinazioaz arduratuko gara. Lan hau honetan datza:

- Irakasle taldeari proiektuaren berri eman, zuzendaritza taldearen bitartez.
- Hauekin batera, proiektuaren atalak planifikatu.
- Errezeta liburuaren argitalpenerako finantziazioa lortu.
- Ikasle eta familien ordezkariekin batera, liburuan aurkeztuko diren errezetak sailkatu, ordenatu eta antolatu, eta azala nahiz egitura diseinatu.
- Auzoko erakunde desberdinekin harremanetan jarri (Jubilatuen elkarte, Casa Extremeña, gastronomia- elkarteak) eta Sukalde Eskola bat bezalako entitatearekin baita ere.

Proiektu honetarako, Nora Fernández de la Bastida-ren laguntzaz baliatzen gara, Gizarte Hezkuntzako ikaslea eta une honetan gure eskolan praktikak egiten ari dena.

## **PROIEKTUAREN EBALUAZIOA**

"Intxaurren Hegoako aste Gastronomikoa" ospakizuna eta gero, antolatutako ekintzen parte hartzea baloratuko dugu:

Hitzaldi, tailer eta eztabaidetara bertaratutako pertsona kopurua.

Bertaratutako enpresen poztasun maila.

Halaber, ikasgela guztietako ikasleek eramanako prozesua ebaluatuko da.

#### **KOORDINAZIOA ETA HARREMANAK:**

"Haurtxoak" Guraso Elkarte: Tamara Gómez Echave, 679 762543 [candagom@hotmail.com](mailto:candagom@hotmail.com)

Ikastetxeko Ikasketa Burua: Pilar Lassalle Liberal, [pililassalle@gmail.com](mailto:pililassalle@gmail.com)

Praktiketako ikaslea: Nora Fernández de la Bastida: [nora69\\_10@hotmail.com](mailto:nora69_10@hotmail.com)

# ESKOLAKO BARATZA





## OGIA EGITEN



## FRUTA JATEN



# ZABALEGI BASERRI ESKOLA

